

SARA
HERRIKO ETXEA



Biztanleen 2026ko errolda

Anderea, Jauna,

Erroldatua izanen zara aurren.

Biztanleriaren errolda **baitezpadako inkesta estatistikoa da**. Frantzia bizi diren pertsonen kopurua ezagutzeko eta gure herriko biztanleria ofiziala finkatzeko aukera ematen du. Honen emaitzak, Estatuak herriko aitzinkontuan duen partaidetza kalkulatzeko erabiltzen dira.

Datu horiek gure lurraldearen **bilakaera demografikoa** ulertzeko ere balio dute. **Ekintza publikoa, biztanleek dituzten beharretara egokitzeko** aukera ematen dute zerbitzu kolektiboen arloan (eskolak, erretira-etxeak, etab.), auzoaldeak arraberritzeko programak eta garatzekoak diren garraiobideak.

Eragiketa horretaz arduratzen den agente erroldatzailearen lana errazteko, otoi, inkesta honi lehenbailehen ihardets iezaiozue, Internet bidezko erantzunari lehentasuna emanaz.

Zuen parte-hartzea funtsezkoa da. Biztanleriaren errolda, herritar-betebehar sinplea eta denentzat baliagarria da.

Aitzinetik eskertzen zaituztet zuen parte hartzeagatik eta onar itzazue, Anderea, Jauna, nire agurrik adeitsuenak.

Zuen Auzapeza

Interneten bidez errolda zaitezke 2026ko urtarrilaren 15etik goiti **le-recensement-et-moi.fr** webgunean

Zure konektatzeko kode konfidentzialak, ondoko egunetan zure postontzian edo agente erroldatzaileak emanik ukanen duzun **internet oharrean daude**. Bizkitartean, ezin baldin baduzu internetez ihardets, paperezko galdetegi batzuk ukan ditzakezu.

Zure ihardespeneak zorrozkiz konfidentzialak dira.

Insee-rat igorriak izanen dira, **estatistika anonimoak** finkatzeko, norberaren bizi pribatua zaintzen duten legeen arabera.

Agente erroldatzailea, txartel ofiziala duena, neutraltasunari eta sekretu profesionalari behartua da.

Biztanleriaren erroldatzea **urrik da**: ez ezazula dirua galdegin diezakezutenei erantzunik eman.